



La última foto de Xebe Peña, recibiendo la placa como miembro de honor del GAME, de manos de Pako Irujo

FOTO ANTONXON ITURRIZA

## Antxon Iturriza

**X**EBE Peña, euskal mendizaletasunaren irudi maiteena, Uzturre mendiaren magaleko klinika batean hil zen iragan urriaren 16an, haren mendiko lehen pausoak ikusi zituen tontorraren altzoan. Sorlekura itzulirik, halaxe itxi zuen 91 urteko ziklo bat, bi muturren artean euskal alpinismoaren bilakaera osoa gordetzen duen zikloa.

Bere heriotzarekin Euskal Herriko mendizaletasunaren historia ere bizirik gabe geratu da. Historia izaten jarraitzen du orain ere, baina datuen bilduma hotza baino ez da, Pyrenaica zaharretan, hemerroteketan edo artxiiboetan bilatu beharreko gertakizunen segida. Jada ez zaigu lekuko zuzenik geratzen, ahoz eta lehen pertsonan Elgetako lehen batzar haiek inguratu zituen girotxoa azalduko digunik ezta Bandresen Elgetako balkoira agertzean zuen irudi paregabea zertzeladarik txikienarekin deskribatuko digunik. Inork ezingu ditu Espinosaren hitzak eta jarrerak berriro Kilimanjarotik gailurraren pozarekin itzuli zeneko une errepikaezin hartan; inork ezin izango du Sopeniak Federazioko lehendakari zenean buruan zebilzkien hausnarketak komentatu.

Bizirik geratzen zitzaigun azkena zen, eta berak bazekien. Gazte garaian Euskal Herriko eta munduko mendiak deskubritzeko abentura zirraragarrian lagun izan zituen guztiak ondotik desagertzen ikusi zituen. Egokituz zitzaion eginbehar historiko horren jakitun, belausaldira baten oinordekoa izatea onartu zuen, azkena eta bakarra, eta aro desberdinen zubi izaten gogotik ahalegindu zen, aro bakar batean lekuz kanpo geratu gabe. Oroimenak gogai-de zituela bizi izan zen, baina oroimen horien errentatik bizi gabe. Bere bizitzaren hondarreen ere, amaiera gertu somatzen zuela, mendiko liburu argitaratu berriak zeuden barreiatuta atsedean hartzen zuen besaulkiaren inguruan, eta Bilboko bere etxera, harpide zen aldizkari mordoa iristen zen oraino. Indar menderaezin horrek, inolako lotsabiderik gabe, egungo himalayistariak aurreratuenekin mahaia eta irizpideak konpartitzera eramanez, apreta eta bizikletaren garaiko antzinako mendizaletasun haren mezulari izatera.

Xebek beti esan ohi zuen bere meritua bakarria belausaldira kideak baino gehiago bizitzea zela. Arrazoi horrek egi erdia baino ez du gordetzen. Izan ere, badira haren adina harrapatu duten mendizale gehiago, edo adin hori gainditu dutenak. Aldea da, mendizale tolosarrak, ahalmen fisiko apartekoaz gain, ohikotik kanpoko nortasuna zuela. Bere karisma zen hedabideetara eramaten zuena, eta ezein kolore eta ideologiaren gainetik pertsona maitatua egiten zuena. Eta ezaugarri hori, gurea bezalako herri ezpaltuan, oso gutxi harro agertu dezaketen dohaia da.

Badira beste ertz batzuk Xebe Peñaren nortasuna gure mendizaletasuneko kasu bakar bihurtu dutenak. Espinosa

salbuespen, garaiko beste inori ez zitzaion burutik pasa Alpez gaindiko mendien bila joate. Tolosarrak, aurrez aipatutako ardura historikoa bere baitan sentitu zuelarik, Kilimanjarora joan nahi izan zuen, Andres handiak 38 urte lehenago Afrikako talaian lagatuko unibertsaltasun mezua jasotzera. Belaunaldien arteko lokarria, gerrako lubakiak etena, berriro lotu zen modu horretara. Baina bazen plus ultra bat. Ozeanoak ez ziren amaierabako zuloetan amiltzen; bazeuden itsasoaz bestalde mendiak eta lurra deskubritzeko. Ez al da harriztekoa Aconcagua igotzen saiatu zen lehen euskalduna jubilatuta berriren pertsona izatea? Atlantikoan barrena itsasontzian, Argentinako panpan zehar trenean, abentura benetakoanari ekin zion Xebek, pertsona gehienek erretiro erosoa baino pentsatzen ez duten adinean.

Eta han, Aconcaguako harripila altuenetan, Xeberen beste ezaugarrietako bat geratu zen agerian: alpinismoari buruzko bere zentzu etikoa. Andinista frantziar bat bizitzara ekartzeko eginahal etsian, argi erakutsi zuen beretzat ez zela giza duintasuna baino tontor garaiaorik. Eta, konkista sukarrak eta loriak sentimendu asko itsutzen dituzten garaiotan, Xeberen Aconcaguako jokaerak mendian inoiz ahantzi behar ez den balioen ordena azaldu zuen argiro.

Bada berebiziko beste osagai bat Xeberen gailurretako eta bizitzako ibilbidea ulertzeko. Haren lorpen eta jarrerak oso gutxi izango ziren izan ziren bezalakoak, markatik kanpoko indarra eduki ez balu buruan. Haren determinazioak, burugogorakeriatik hurbilekoak sarri, bere helburua lortzera eramanez zuen maiz. Hil baino egun gutxi batzuk lehenago, Monte Rosako igoera gogoratu zuen, 63. urtean, eguraldi txarriari eta laguntzen zion gidariari kontra eginda. Gaixotu baino hilabete batzuk lehenago, Moncayon haize-aldaboi indartsua zutela, adinean bikoizten zuten lagunaren artean, baldintza haietan etsi beharra zegoela onartzen azkena izan zen Xebe. Azken unera arte borrokatzaile, Paco Irujo Gameko ohorezko kide izendatzen zuen plaka entregatzera joan zitzaionean, hil baino 10 egun lehenago, besaulkitik altxatzeko eginahala egin zuen, zutik, bere bizitzako azken omenaldia jasotzeko. Pauso bizkorrean behin baino gehiagotan pasatzen ikusi zuten Aralarko pagoak bezala, zutik hil nahi izan zuen Xebek, eta enbor ohoragarri horiek bezala, bere sustraiak betirako errotuta utzi ditu mendian. □

## Xebe: Alpinismo mende bat



- Xebe Peña 1907ko azaroaren 8an jaiozen Tolosan. 1926ko otsailaren 19an Buruntzan idatzi zuen mendiko lehiaketa baterako lehen gailur baliagarria.

- Haren biografiako datuak bere mendizale ibilbide luzearen froga garbiena dira.

- Urte bereko maiatzaren 30ean XIV Orduko lehen martxa egin zuen. Azkena,

66 urte geroago osatu zuen, sasoi batean, bizkar gainean 84 urte zituela ordurako.

- 1953an Lau Katedraleetako Martxa entzutea osatu zuen, ondoren beste inork lau egunetan errepikatu ez duen bidea.

- Mont Blancoko gailurrera bederatzi aldiz igo zen, azkeneko aldiz 81 urte bete ondoren.

- Kilimanjarok 1968an ikusi zuen aurreneko aldiz bere gailurrean, eta geroztik beste hiru bider errepikatu zuen esperientzia, azkeneko aldiz 87 urterekin.

- 1973an Aconcagua igotzen saiatu zen lehen euskalduna izan zen, eta gailurretik metro gutxira geratu zen.

- Demawand, Ararat, Popocarepetl eta beste hainbat gailurretara ere igo zen Xebe, eta nola ez, baita Euskal Herriko guztietara eta Pirinioetako gehientsuenetara.